

iritzia

Aitasantuaren Etorrera

Fededun baten gogoeta
berezkariak

Nik ez dut Aitasantuaren sinesten. Jesukristogun sinesten du kristauak; eta Aitasantua haren ministrari eta ordeko bezala Elizaren buru jarria dagoela sinesten du katolikoak. Baina era berean sinesten du behartsuari, zapalduari, espe-teratuari egiten zaion kaltea nahiz ontartea Jesukristori berari egiten zaiola, eta Horren izenean biltzen den kristau talde txikiak tardean duela Bera ere. Hortik harutza egiten diren muntaketa guztiak kulturazko edo sozialak izan daitezke; baina ez dira fedekoak.

Hortik abiatu behar duela uste dut edozein fededunek, Joan Paulo II.aren etorrera dela eta, bere jarraia hartzeko eta bere eritzia erakusteko.

Joan Paulo II.aren lau urteak

Lau urte bete berriak ditu Aitasantu honek. Urriaren 16an -1982koan-, hain zuzen, aukeratu zuten Aitasantutzarako. Zalantzarik ez dago, urte horietan ekarri duela Joan Paulo II.ak berrikuntzarik Aitasantuaren ministraritzaren betetzeko moduan.

Joan XXIII.ak eta Paulo VI.ak hautsia zuten Batikanoko itxitura; baina funtsean eta ia osorik beren Aitasantutza Batikanotik bertatik eramantzen zuten; noizbehinkako irtenaldiak horixe besterik ez ziren: noizbehinkakoak; Elizaren historiako garrantzi handia izan bazuten ere. Gazteluaren antz handia du Batikanok: Fedea defenditzeko eta Eliz erreinua administratzeko eginononbait. Hortxe giltzaturik bezala bizi izan da Aitasantua mende askotan. Bertan hartzen ditu, menpekotasuna eta begirunea agertu nahi dioten erreinutarrak; horretarako dago gazteluaren plaza handia.

Aitasantu honek neurri batez behintzat hautsi egin du irudi hori, bere mundu zabalerako ateraldiak eta ibilaldiak, Aitasantuzaren ministraritzaren betetzeko behineneko bide bezala jarri dituenen.

Urrutiko Poloniatik zetorren Wojtyla Kardinalak aski ezaguna zuen Batikanon, zenbait Sinodo orokor antolatuzko Batzordearen burua izana bait zen. Administrazio-aparatu galanta da Batikanon; eta heren-suge tzar izugarria bezalako, edonondik datorren Aitasantua irensteko moduko, hori, mundu osoko Elizaren fedearen eta disziplinaren ministrari soil bihurtzeraino.

Joan Paulo II.ak lortu du administrazio-burokrazia horren aparatua gainditzea; horrela ulertu behar direla uste dut kanporako bere ibilaldiak, eta, neurri handi batez, horien inguruan bere Aitasantuzaren programa eratu izana. Horretarako dituen dohain pertsonal

eta psikologikoak ikustea ez da orain dagokiguna; ez eta norainoko burruka eraman behar izan duen Batikanoko aparatutik ateratzeko.

Administrazioa eta misioa

Psikologiak, soziologiak eta kazetaritzak aparte, fededunak sumatu uste du Ebanjelioaren kidesan handiagoa, bere Aitasantua mundu zabalean fededunen sinetsmenaren sendotzen eta gizaki guztiari esperantza zabaltzen ikusten duenean.

Misioak definitzen du aurrenik Kristoren Eliza, eta ez Administrazioak. Eta Elizaren buruaren lehen eginkizuna ez da bere gaztelua zaintzea eta defenditzea, eta bai munduaren serbitzari izatea. Horregatik Aitasantu honek Batikanon ere kiko lortu duen askapena, Elizaren beraren eta Ebanjelioaren askapen bezala hartzen du fededun honek. Apostoluek horrela jokatu zutela uste du; eta Apostoluen ondorengotzat hartzen du Aitasantua.

Honeraino behintzat poztu egiten naiz ni, Aitasantu hau munduan zehar dabilelako eta gure tartera datorrelako ere bai. Ebanjelioaren dinamismoaren seinale iruditzen zait. Baina fededun kritikoa nekez gelditzen da lasai inolako seinalean, bere fedearantz horiek duten "kontra-seinalea" aztertu gabe.

Joan Paulo II.aren ibilaldi horietan nabarmentzen den Aitasantuaren misiolari-tza modu hori neri ez zait aitegin. Hiru akats aurkitzen ditut: *herritareria*, *lidereria* eta *ikusgarrikeria*.

Herritareria. Herriarentzat da Ebanjelioaren Berriona, eta Eliza herritarra beharko luke izan hortik sortzen den fededunen elkarteak. Baina gauza bat da Eliza herritarra, eta besterik Eliza populista: Lehenengoan, herritik sorturiko erlijiozko eta fedezko adierazpenak haintzakotzat hartu egiten ditu Elizak, abiapuntu bezala; bigarrenean, herria erabili egiten da, gidarien entzuleria eta txalotzaila bezala. Nere ustez, Joan Paulo II.ak, bere bidaletako misiolari-tza horretan, gehiago joan

beharko luke herria ikustera, horri entzutera, oinarriko Eliz elkarteekin hitzegitera, bere inguruan jendolde handiak biltzera baino.

Lidereria. Edonork aitortzen dio Aitasantu honi gidariaren sena eta dohaina. Baina kristautasuna ez da lider-etan oinarritzen eta bai fededunen elkarteetan. Kristau Eliza ez da lider edo gidari handiren baten inguruko be-roaren gain eratzen den mugimendua, eta bai gurutzean hildako eta berpiztutako Jesukristorenganako fedean oinarritzen den elkarte. Elkarte horien fedea sendotzera eta argitzera etorri beharko luke Aitasantuak; eta hori egiten duen neurrian baliozko iruditzen zait horren etorrera. Kaltegarria iruditzen zait, ordea, Elizabarruko eta gizarteo lidereria eta gidarismoa aupatzen eta sustatzen duen aldetik.

Ikusgarrikeria. Antzerkilaria izana da Joan Paulo II.a. Eta horretarako ere dohaina du nonbait. Ez dago zalantzarik alderdi horixe atxegin zaiela komunikabideei; baina kristau fededun askok egonezina-edo nabari du guzti horren aurrean, bere fedearren seinaleak eta adierazpideak jendaurreko ikuskari eta azaleko zeremonia bihurtzen direlako. Nik ez dut uste benetan Aitasantu honek bere mezuaren antzerkia egin nahi duenik; eta bere fedearren sakontasuna eta esperantzaren tinkotasuna zinez bizi eta lotzarik eta beldurrik gabe agertu nahi duela iruditzen zait. "Esperantzaren testigu" bezala etortzea eskertzen diogu kristauok. Baina uste sendoa, edonoren aurrean aitortzekoa, baldin bada fedea, barru-barruko sentimendua ere bada, ahalkezkordetzekoa eta edonola ez nabarmentzeko.

Fedearren edozein adierazpen da anbiguo eta adierabiko, edo anitzeko. Eta Joan Paulo II.aren ibilaldietako misiolari-tza modu horrek ez dio lege horri ihesgiten. Geure zalantza agertzeko eta geure kritika berezkaria egiteko eskubidea dugu gutxienez kristauok ere. Paulo AGIRREBALTZATEGI



bertso berriak

joxeaustinek jarriak
Udazkena zen

Badet buruan gertakizun bat ahaztuko etzaiguna udazkena zen orain urte bat txit hego haize leguna etxetik irten mendi aldera osasun eta laguna tortola gaixo hego elbarri nik hantxen topatu nuna.

Zeuzkan indarrez abiatu zen bidetik ezkutazera naiz aleginak lurrean egin etzen altxatzen aldera hala guztiz e lortu zun berak sartzea sasi tartera etzun nai nunbait erortzea inoiz gizonen eskuetara.

Bere ustetan al zun moduan jarri zen disimuluan bi begik zorrotz iya aterian orbel tartian txokuan besoa luzetuz harrapa naian hozka ein zidan eskuan ordun oharitu nintzen lenengoz tiroa zuela heguan.

Hurbildu nuen nere begita nuela bi eskuen artian zauri gaizto bat ikus ziteken eskuingo hego gainian iruditxo bat azkar buruan sartu zen ne memorian norbatitek tiro emana zegok lasai zihoala aidian.

Baserri zar bat nuen gertuna

sedatzera eramateko al nun apalen ne kanguruan berari kura eiteko oxigenadaz garbitu ondo kanpaxu baten sartzeko jan pixkat ere eman genion zeukan gosea kentzeko.

Eguna joan berria heldu zihoan beti indartuz jan faltarik ez esku onian hasi zen hego kez balduz kanpoa begira atera naian lepoa ondo lutzatuz hego haizea bere mokuan lehen bezala dastatuz.

Bost hilabetez artua emanaz euki nuen nik horrela ez bainuen nai inoiz ikusi papua goruntz zuela askoz pistigo baitira hoiek aidean hor dihoaztela bainan datorren zoritxarra hau kasik sendatua zula.

Behin batzen etxe barruan hego zebilen ikulun jeisten hasita hegatsan kontra hantxen kolpea hartu zun geroz pasatu zituen miñak nolatan guk ez dakigun haren bi begi argitxo haiek geratu ziradene ilun.

JOXEASTIN
ZIZURKIL

Davantek jarriak
Erromako aitari

Linboen sabeleti, erdi ez-deusean Holtzarteko leizetik zuri otioitzean arigian bizi nahiz, Erromako Aita, entzuten ez banaizu, norena da falta,

Ez duzu ezagutzen zurea den alta? izenak ditu ehun, izenak milaka Maddalen, santa-Grazi, Etxaberri, Jatsu Garikoitz, Eneko ta zuk ahantzi duzu?

Ez naizu ezagutzen, ez da ene falta zur etxaldean luzaz ari izan naiz jorran bordalde urrunera zuretzat naiz joan amak ere beharra zuketarik alta.

Ama nor dutan galde? Zurea zen alta aitaren zerbitzuko, aitaren menetan zure sankristietan gelari mendetan ahantzirik baduzu ez da haren falta.

Burgosko kaperatik, jaz Eguberritan ene gatik erromes, arropa beltzetan eskelari zitzaizun amatto etorri: ezagutu gabe zuk, esku huts igorri!

Ez duzu ezagutzen, zurea zen alta izenak ditu ehun, izenak milaka Oneka, Margarita, Leire, Arantzazu Nafarroako Jone, baina zuk ukatu?

Ez naizu ezagutzen, zurea naiz alta izenak ditut ehun, izenak milaka Arana, Lauaceta, Lizardi, Agirre Telesforo, baina zuk ukatu ni ere.

Ez naizu ezagutzen, baina ene falta bekatutako joz, ezagutzen alta. Bekaturo naizenaz, bizirik nagozu amaren sabeletik ezin bota naizu.

Izenak ditu ehun, izenak milaka Euskadi askatzeko izena du alta! Herri hau bizi denaz, hob' ezaguturik aitarekin garate guztiak baturik.

J. L. DAVANT